



MADDI SOROA

## Txillardegi: Inkonformista baten bizitza aberatsa

Baleren Bakarkoa Azurmendi

Joan zaigu betirako gure herriari guztia eman dion gizon inkonformista bat: *Txillardegi*. Zalantzarik gabe gure herriaren azken hamarkadetako historian hizki larriz idatzita geratuko da bere izena, hori eta gehiago merezi baitu, nahiz eta bere momentu oparoenetan zegokion onespén hori, tamalez, behin eta berriz ukatu egin zitzaion.

*Txillardegi* pertsonalki ezagutzeko parada duela berrogei urte izan nuen. Hendaian hain zuzen. Eta geroztik bere laguna izateko parada izan dut eta horrek beti harro sentiarazi nau. Hendaian, behin eta berriz, azaldu zidan kezka Hegoaldean dena "espainolisten" esku zegoela, eta ni ikuspegi baiko-rragoa ematen saiatu nintzen. Uste dut une horretan ez nuela konbentzitu, bai ordea handik urte batzuetara Hegoaldera itzuli zenean.

Behin Donostiara heldu ostean, elkarrekin proiektu ugartan ibili ginen: Udako Euskal Unibertsitatean, Euskal Herrian Euskaraz-en, Alde Zaharreko Arrano Beltzan, Herri Batasunean, erakunde honek laurogeigarren hamarkadaren erdian hartu zuen bidea argitzen, Fresnora egindako bidaian, EHU n sartzeko lagundu nionean, eta abar luze bat. Honek

guztiak bion arteko konfiantza sakondu zuen eta hitz-aspertu luzeak burutzen genituen. Azken urretan, tamalez, Joseba espetxeratu ostean nahiko ahulduz joan zaigu gure Jose Luis, artikulua aberatsak idazten jarraitu zuen arren, ARGIAkoak lekuko.

*Txillardegik* Euskal Herriari egin dizkion ekarpenak inork ez ditu ukatuko. Berea, abertzalegintza zen, dena bere herriaren alde ematea. Hala ere gizon handi honek zerbaitekin sufritu baldin bazuen Euskaltzaindiko kide osoa izateko ezetza eman ziotenean izan zen. Bere baitan ez zen sartzen euskararen alde, modu zientifikoan eta literarioan, hainbeste eman ondoren, nola ez zitzaion onesten euskara indartu eta hedatu lanean ari zen erakunde horretan. Nire uste apalean, Euskaltzaindiak aukera paregabea galdu zuen erakunde hori prestigiatzeko *Txillardegi* bezalako pertsona jakintsu eta langilearekin. Hala ere, bere obra handia, euskal politikan, literaturan, linguistikan eta kulturean, hor dago, zenbaitzuen miseriak agerian jartzeko, baina kaltea eta samina inork ez dizkio kenduko gure gizonari.

Agur eta ohore, Jose Luis!



1979an Bergaran, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean.